10 z.k./ 2020

# Arreta Soziosanitarioko Buletina

2020ko Martxoa

## Gonbidatua

### *Asistentzia-denboraren kudeaketa eraginkorra, arreta sozio sanitarioa hobetzeko*

Osasun arloan eta gizarte arloan, askok behin eta berriz aldarrikatzen dute **DENBORA** behar dela. Kontsulta-denbora gehiago premiak aztertzeko eta zainketen plangintza eta jarraipena egiteko. Denbora gehiago, azken batean, gizarte eta osasun laguntza hobea izateko.

Profesional askok partekatzen duten premia hori agerikoa da 'osasun-arazo larriengatik edo muga funtzionalengatik eta/edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuagatik aldi berean osasun-arreta eta gizarte-arreta koordinatua eta egonkorra behar duten pertsonen arretan, arretaren jarraitutasun-printzipioari egokituta'. (12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa).

Elkargune horretan, **erantzun bateratu eta koordinatua** behar duten egoera konplexuetatik eratorritako erronka handiak sortzen dira, behar soziosanitarioak dituzten pertsonei eta haien familiei ongizatea emango diena. Lehen mailako arretako talde soziosanitarioak eman behar dute erantzun hori, batez ere lehen mailako arretako medikuek eta erizainek eta gizarte, udal- edo foru-laneko langileek.

Horri dagokionez, oraintsu **esperientzia pilotu** bat burutu da, 'Lan-denbora partekatu sozio sanitarioa' izenburupean, profesionalen agendan ('ekintza sozio sanitarioa') lekua ematen duena kasuak kudeatzeko eta koordinatzeko. Azterlanak agerian utzi du koordinazio soziosanitariorako espazio/denbora esklusiboa izateak **taldeen dinamika asistentzialak indartzen dituela**, **lankidetza-harremanak sakontzen dituela** eta praktika asistentzialak aberasten duten **'egiteko modu' berriak sartzen dituela**. Hortaz, arreta soziosanitarioaren eredua.

> **'Ekitaldi soziosanitarioa'** sartzeak aukera eman du koordinazioari eskainitako denbora **ikusarazteko** eta denbora asistentziala **modu eraginkorragoan antolatzeko**.

Parte hartzaileen balorazioak ziurtatu egiten du denboraren baliagarritasuna, **erraztaile gisa taldeek lana burutzeko** eta **erabakiak hartzeko.**

Azterlanaren ondorioek **ikaskuntza interesgarriak** planteatzen dituzte kudeatzaile eta hornitzaile asistentzialen hausnarketarako. Beti ere, koordinazio soziosanitarioak planteatzen dituen erronka garrantzitsuei aurre egiteko.




*Asistentzia-denboraren kudeaketa eraginkorra, arreta sozio sanitarioa hobetzeko.*

**Agenda partekatuko denbora** bat sartzeak ozeanoaren handitasunean argi izpi bat eskaintzen duela dirudi.

**Lucía Iñigo Regalado**
**BIOEF Teknikaria. Koordinazio Soziosanitarioko Taldea**

# Albisteak




## Haur eta nerabeenganako indarkeria EAEn. Diagnostikoa, erronkak eta gomendioak (2019)

Gehiago irakurri...



## Nortzuei eragiten die bakardadea eta gizarte isolamenduak?

Gehiago irakurri...




## Genero-indarkeria emakumeen osasunean duen eragina

Gehiago irakurri...




## Familiaren etxegabetasuna Europan eta horri lotutako osasun-arazoak

Gehiago irakurri...

## Albisteak




### Zahartzea Europan adineko pertsonei begirada bat

Gehiago irakurri...



### Koordinazio sozio sanitariorako denbora asistentzialaren kudeaketa

Gehiago irakurri...




### Zahartzearen ekonomia edo bizitza-luzeraren dibidenduak maximizatzeko modua

Gehiago irakurri...




### Mendekotasuna eta ordaindu gabeko zainketak Koordinazio Soziosanitarioko Aktak aldizkaria 25. Zenbakia

Gehiago irakurri...

# Albisteak




## Euskal Herrian bazterketa eta garapen-soziala txostenaren ondorioak

Gehiago irakurri...




## Osasuna eta gizarte-beharrak Espainian 2019

Gehiago irakurri...




## Erresuma Batuko zaintzaile informalei laguntzeko ekintza-planaren tarteko ebaluazioa

Gehiago irakurri...




## Bakardadea eta isolatze soziala Erresuma Batuan. Gizarte-boluntariotzatik eta komunitatetik jorratzeari buruzko zenbait ikasgai

Gehiago irakurri...

## Albisteak




### Biztanleriaren zahartzeari buruzko probokazio gogoetatsua Erresuma Batuan

**Gehiago irakurri...**

**Editore Taldea**
Lucía Iñigo, Aitor López de Aberasturi, Miren Josune Luzarraga eta Catarina Paz

Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 Araudi Orokorrean xedatutakoa betez, argitalpen hau bidaltzeko zein beste argitalpen batzuen berri emateko zure baimena eman diguzu.

Buletina jasotzen jarraitu nahi ez baduzu, **baja hemen** eman dezakezu coordinacionsosa@bioef.org helbidera idatzi ezkero. Halaber, dagozkizun eskubideak erabiltzeko helbide honetara jo dezakezu: Eusko Jaurlaritza, Arreta Soziosanitarioa, Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz.

Informazio honetara iritsi zara eta interesgarria iruditu zaizu? **Buletin hau ere jaso eta Arreta Soziosanitarioari buruzko informazioarekin egunean izatea nahi duzu?** Gure webgunean **alta eman dezakezu** esteka honen bidez: http://www.euskadi.eus/sociosanitario/-/informacion/suscripcion-boletin-atencion-sociosanitaria/